

XCVI. ERANSKINA

3294 LANPOSTURAKO ENPLEGUA FINKATZEKO
SALBUESPENEZKO PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.– Deitutako plazak.

3294 lanposturako plaza 1erako deialdia egiten da, txanda irekian, eta ez du nahitaezko hizkuntza-eskakizunik.

Eta banaketa honen arabera izango da:

Sarbide orokorreko modalitatea: 1.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1. – Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2.3 atalean ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2. – Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa 19,78 eurokoa da.

2.3. – Oinarri orokorretako 2.3.e) atalean xedatutakoari dagokionez, honako hauek dira deitutako lanpostua lortzeko eskatzen diren titulazioak eta esperientzia:

LH I, metalaren adarra edo baliokidea.

edo

2 urteko esperientzia ofizial galدارagile gisa.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorretako 13.2 atalean egiten zaio erreferentzia– honako hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo erakundea, zentro organikoa, destinoko udalerria, ordainsari-maila, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data eta lanposturako beharrezkoak diren betekizun espezifikoak.

3.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta prozesuaren kalifikazioa ondoren adierazten den baremoaren arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du. Prozesuan jarraitzeko, gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira IV. titulazio-taldeko lanpostuetan jarduteagatik –eskola-graduatu, erdi-mailako LH edo baliokidea– emandako zerbitzuak, edozein administrazio publikotan emandakoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoak barne– eta erakunde autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, alde batera utzita funtzionario harremana edo lan-kontratuko harremana den.

Esperientzia hori baloratzeko, 0,0625 puntu emango dira lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 15 puntu lortu ahal izango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, behin hori amaituta, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira. Horretarako, hilabetetzat 30 eguneko multzoa hartuko da.

b) Esperientzia espezifikoa.

Zehazki, esperientzia orokorraren baloraziotik aparte eta haren osagarri, Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboko lan-postuetan egindako zerbitzu hauek baloratuko dira –gehienez ere 45 puntu lortu ahal izango dira–:

- 3294 kodea duen galdaragilea lanpostuan: 0,1875 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- Deitutakoa ez den IV. sailkapen-taldeko lanpostuetan: 0,12 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko; gehienez ere 20 puntu lortu ahal izango dira.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lan egindako aldiak batuko dira, eta, behin hori amaituta, hilabete baino gutxiagoko zatiak baztertuko dira. Horretarako, hilabetetzat 30 eguneko multzoa hartuko da.

c) Tituluak.

Gehienez ere 12 puntu emango zaizkie sartzeko alegatutakoaz bestelako titulu akademiko edo unibertsitate-titulu ofizialei, ondorengo baremoaren arabera:

- Ingeniaritza tekniko, unibertsitateko diplomatura, arkitektura teknikoko titulua edo baliokidea edo goragokoa egiaztatzeagatik: 6 puntu titulu bakoitzeko.
- Batxilergoa, bigarren mailako lanbide-heziketako titulua edo baliokidea egiaztatzeagatik: 4 puntu titulu bakoitzeko.
- Eskola-graduata, Lehen mailako lanbide-heziketako titulua edo baliokidea egiaztatzeagatik: 2 puntu titulu bakoitzeko.

d) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, lanpostura sartzeko aukera ematen duen Segurtasun Sailaren lehentasun goreneko lan-poltssetako batean egoteagatik, Giza Baliabideen zuzendariaren 2022ko urriaren 3ko Ebazpenaren bidez eguneratuta (2022ko urriaren 17ko EHAA).

Atal hau baloratzeko, kontuan hartuko da soilik pertsona benetan sartuta dagoela baloratu beharreko lan-poltsan, etenik gabe 2022. urtetik atzerantz, baremo honen arabera:

- 15 puntu 2008. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.
- 13 puntu 2010. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.
- 11 puntu 2012. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.
- 9 puntu 2014. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.
- 7 puntu 2016. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.
- 5 puntu 2018. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.
- 3 puntu 2020. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.
- Puntu 1 2022. urteko eguneratzeaz geroztik lan-poltsan etenik gabe egoteagatik.

e) Informatikari buruzko ezagutza.

Informatika-ezagutza baloratuko da –gehienez ere 8 puntu lortu ahal izango dira–. Puntu 2 emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Oinarritzko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarritzkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft PowerPoint 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da moduluak gainditu diren, 9.2.5 oinarri orokorrean adierazitakoaren arabera. Modulu beraren hainbat bertsio egiaztatzen badira, bakar bat baloratuko da.

f) Hizkuntzen ezagutza.

Hizkuntza hauen ezagutza baloratuko da: ingelesa, alemana eta frantsesa –gehienez ere 5 puntu lortu ahal izango dira–. Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen arabera, hurrengo hau izango da baremoa, eta hizkuntza bereko mailarik altuena bakarrik baloratuko da:

- C1 maila edo goragokoa: 3 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- B1 maila: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko.

Ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 8ko EHAA) hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien baliokidetasuna ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako.

g) Euskararen ezagutza.

- 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 5 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 10 puntu.
- 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 15 puntu.
- 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 15 puntu.

4.– Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatuz, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko da, lanpostu honetan emakumeen azpiordezkaritza baitago.